

San Paulo'ren Mundu-berriztea

Makiña bat aldakuntza sofritu du munduak mundu denetik. Eman ditu orretarako gizadiak nortasun bereziko zenbait presuna munduaren joanean bizikerari zuzenbide berri edo jomuga diferente bat ezarri diotenak. Ez da erlijioa makalena gelditu izan oi onelako aldakuntzaetan, ez sortalde ta ez sartaldean. Eta batez ere gureztat erlijioa izan da inoiz alako erreboluziorik osatu duen bakarra: Kristaugoaren agerpena ta gizarte itzulia. Arazo onetan berriz, aitortu bear Tarso'ko Paulo'ren eragiña bortitzenetakoa izan dela.

Kezka-miña

Ezaguna dugu San Paulo'ren sikologia sutua ta mogimendura isuria. Ba-zuen biotzondoa kiskaltzen, egoneziñaren miña garretan, lehenengo Jerusalem'en Gamaliel'engana bultzatu zuena ta gero zeloteetara. Barne-su arek berak obligatuko zuen geroago Eliza jaioberriarekin mundu zaarraren ondakin apurtuetan erreboluzioa piztera. Matxinada pakezko au, Holzner'ek deklaritzen digun bezala, Damasko'ra bidean jasandako Jainkoaren ikustamenean aurkitu zuen, bere marra jeneraletan beintzat: Jaungoikoaren konzetu ta gizonarekiko iritzi berriak, gizartearenganako ideal berria, maitasunean eta alkar zerbitzuan oinarritua, zillegizti berria. Lau molde oen arabera izatuko zen kristau erreboluzioa. Lau puntu sakon.

Geroko geroz luzamendutan ibilli gabe jarri zen Paulo lanera. Erretiratu zen Arabia'ko basamortuetara dotriña berriaren ausnartzera ta egintza ereduak zein moldetan eratu pentsatzera. Ez alperrik. Andik irtengo zen Paulo jendeen Apostolua, zeinen itza ezpata bezain zorrotza ta burni goria bezala dirdaitsu sarkor izango zen. An erne zen Elizaren erreboluzioa.

Emen esanak bitan, partiturik bezala joango dira, zeren bi egin-kizun eduki baitzituen Paulo'k: bata juduen artean eta griegoen artean

bestea. Gaiñera, aldatu zuenaz kanpo asko artu ta usatu zuen ere aiengandik artua, etorri ere biziki ontsa zetorkion-eta. Azkenik, falta zait kofesatzeta Paulo'ren teologia gaurko teologia kristaua dela, eta idarokitzen baitute aren itzak ideatan franko ta frankia, begitu bear zaiola ikuspegi aldira moldatu batekin.

Judaismuak izan zuen partida onik asko San Paulo'rendako, noski. Lehenengo asiera-puntua, beraz, artan bertan idoro zuen. Arbasoen eta profetaen giroan borobildu zen Paulo'ren izpiritua, ta orobat misio garaian sinagogaetara zuzentzen zen beste guzien aurretik. Ez bakarrik ebanjelioa Israel'go ardi galduentzako zelako lehenbizi, an entzuleen segurantzia zeukalako ere baizik. Ta ez nolanaiko entzuleak, ziurki: judutarren jarraritzailleek ikasia baizuten erlijioaren eta moralaren alkar-tasan derrigorrezkoa.

Orain ezkeru pasa gaitzke Jainkoaren ideia miratzera.

JAUNGOIKOA

Labur premian airatua: kontrajarriaz juduen "benganzetako ta ejerzitoen Jaungoiko"-ari, Mendiburu'ren itzez esateko, eta griegoen jainko suerte lizuneri, agertzen da Jainko kristaua: "Deus charitas est". Biurtzen da egia griegoen angustia minak asmatu zuen Prometeo'ren mitoa, aiek iragarri bezalaxe, zeren beste jainkoen jelosiarren mendekuz gaztigatua izan baizen Prometeo, ala Jainkoak ere tormen-tatu zuen bere amodio Seme Jesus, gurutzeraño. Maitaturik gizonok, maitatu gintuen azken-fineraño.

Paulo'ren predikueta bi joeraz oar gintezke. Pagano edo jentillekin diardunear teologia naturaletik abiatzen da. Esate baterako Areopago'ko mintzaldian "Jainkoa gudan da" poetaren esanean sostengatzen da. Kristauekin, Erromatarrei Gutunear berriz, gauzen bitartez dezakegun Jainkoaren ezagumenetik argudiatzen die. Lehenengo arek ("Est deus in nobis, agitante calescimus illo") filosofiaren Jainko'ra garamazkike, ez fedearenera. Ez dut esaten bereizkuntza defendatzen duenik. Esaten dut bakarrik Paulo'ren pentsamendua, segun eta zeinentzat jardun, iturburu bi orietan oinarritzen dela. Izan ere bien artean dagoen alde txetzen du Paulo'k, gizonaren, kristauaren Jainkoa erakustean. Filosofiaren Jainkoa munduan gelditzen da loturik. Adimentuak lortzen du arrazoiketaren erpiñean "motor immobilis" bat, bere gaitzez sorkarieri lotua dagoena, demiurgo munduaren lehenengo kausa. Baina kausa ori kausitzen da munduaren barnean, eta "genus" baizik ez dela, ez Jainko absoluto presunatasunez dotatua. Teologia natural au ez da, dio Paulo'k, kristau sinismenaren konprenitzeko ataria besterik.

Fedea, oso-osorik eta bakar-bakarrik bere burua agertu digun Jainkoan zimentatzen da, ala nola bere agerpenetan eta kristau irakaspenetan azaltzen zaigun. Oni jarraiki, ba-da puntu bat puntuzkoa, fina ta noblea nun diren gizonaren izpiritua ta Jainkoarena ikutzen, alkartzen eta batzen. Da, gure kontzientziaren ondoan sentitzen dugun *Bestea* (gure izaeraz gairdikoa) kontenplatzeaz nire Ni'a ta Jainkoa'ren Ni'a bat egiñik errezibitzen ditugun aldi-une ohorezkoa.

Ni bi oetaz landa beste bi jaso ditzakegu nirea banatuaz: goitarra bata, beheara isuria, emana ta eramana bestea; au da, gizon zaharrarena ta berriarena. Ta orduan, neure barnean bi ni'ak burrukan soma ditzadanean, orduan ikusiko dut inoiz ez bezala Jainkoa gure laguntzaille dela, gure Erredentore ta Salbatzaille. Beraz, ba-dira izan zenbait pentsatzaille katoliko au dela diotenak Jainkoaren esistentzia frogatzeko argumenturik baliotsuena, ots, gizonak onerako dei ta manamendua duela jakitea.

Orra Kierkegaard eta Sartre'ren askoz aurretik gaitzaren prolema Tarso'ko Paulo'k nun erabiltzen zigun, eta gaurko maneraren kontrast erabilli ere. Ala ta guztiz, Paulo'k etzuen fenomeno guztien esplika zitzakean au artu. Naiago zuen beste bide kristauago bat: erlijio esperentzia bizia. "Deus charitas est", izan bedi maitasun-karitate au bera ezagumenaren oiñarri, gero moralarena izateko. Agapé Kristaua Eros platonikuaren aldean ederra da: au gizon librearen almen baita, ta ura Jainkoarena berarena. "Jainkoa maitasun da" Joan'en definizioa buruz-behera sar ditekete Paulo'ren teorian. Maitasun au berriz, Kristo'gan agertzen zaigu, ta Beragatik ezagutzen dugu. Jainkoak jendartearekin duen egiteko dena betidanik da pentsatua, baita munduaren salbabidea ere. Emen frantziskotarrak!... Paulo'k Kristo eterno onen gainean zituen ideiaen laburpen bat ematen zuen (ez ahaztu Joan'en ebanjelioaren aurreko dela Paulo) Kristo'ari "Logos" deitzean, au da, ITZ errebelatua, Jainkoaren ideia betikoen zildai ta merezimenduez dotaturik zetorrena.

"Eta ITZA biurtu zen aragi" Joan'en esana egia sakon, benazko ta naturala da. Adierazten baidu, ez ainbeste Testamentu Zaharreko Jainko andi boteretsua nola Jesukristo'gan geurtatu zaigun amodiotsua; Axular paregabearekin esateko "gure laungoikoa baita hain on, biotzbera, miserikordios, pazientziatsu eta etorkor".

Agertzen zaigu amore au Jesus'en bizitza osoan, eta eriotzean bereziki. Jesus ez da, Paulo'rentzat, Jainkoak egiten digun emaiia ta donua bakarrik, baizik da Jainkoa bera gugatik ofrenda egina. Jesukristo'ren odolak sartuko gaitu Jainkoaren esentziarekin artu-emanetan. Au da tragediia: Jainkoa sofritzen sorkariagatik.

“Gure Iaungoikoak, munduko bertze gauza guztien ondoan, gizona bera, bere gainki, bere imajina ta idurira, bat ere bekaturik eta bekaturen kutsurik ere gabe, anhitz donuz, dohain eta abantail suertez dotaturik egin zuen”. Onela Axular'ek Paulo'ren bidetik. Kristianismuarekin jasotzen da gizona destinoak ematen dion mailla gorengora. Ia ez da gizona gizon, Jainko baizik: “dei estis”. Baiña utzi dezadan gai auurrengoa enseia dedin berari buruz.

MORAL BERRIA

Ez, ez nator kondenaturik dagoen ezeren alde. Ez det aterako Paulo “zillegizti berria” deitu denaren aitatzat. Nietzsche'k madarikatzen duen “esklaboen erreboluzioa” zerbait arrotzea permitituko didazute alere.

Damasko'ra bidean izaniko ixtripuak argitzen du Paulo osoa. An itzlen da bizitza bat —“baiña ni il egiten nintzan”, esango du geroago Paulo'k berak— berri batera sortzeko, Kristo'k iruntsia, betea ta arrebatatua bezala. Bi etsai aurrez-aurre: bizitza deitoragarri aurrekoaren Ni mindua, ta Kristo'gan berpiztutako berria. Ez bere bizitza, Kristo'rena baiña: “Bizi naiz, bizi, ez ni ordea, Kristo da baizik nigan bizi dena”. Kristo'k irabaziko du, ta bere esklabo biurtuko da Paulo, errendaturik.

Begira ditzagun moraleko puntu zenbait, sistema osoa ikustatzea baiña laburpenari egokiagoa baizaio, ta oneri bolondreskiago menderatzen zaiona.

Pekatuak:

Saulo judutarra, Damasko aurrekoa, pekatuaren beldurraren beldurrez beldurturik biziko zen, atsedetik gabe, noski baiña noskiago. Saulo etzen epela, ez zuri ta beltzetakoa. Erabatekotasun miñak erretzen zuen, eta etzen izango fariseo txepelena. Jesus'ek liberatuko du estuasun aren lorretik askatasun pozgarrira. “Ez al dakizute aingeruak berak ebaztekoak gerala?”, die korintokoeri. Zorion librearen ur alegeratik edaten du. “Gaixo dago sendaeziñezko betiraunde-gaitzarekin” (Schmitz). Itxaropena.

Itxaropen au Jesus'ek du mantentzen, indartzen eta bizi erazten. Jesus'en arimak, esan diteke gorputz artzen duela Paulo'gan; biziki giar ta zaintsu, Paulo'ri zegokionez. “Bidea Kristo'gan” deituko den erlijioaren eta moralaren alkartze au bizitza aldatuko duen punturik beñena dugu kristianismuan. Topatzen da bide berri bat Kristo'gan.

(In Christo esaera 264 aldiz erabiltzen du Paulo'k.) Bide zorioneko au dela medio konprenitzen da Lehenengo Korintokoeri kartan egi-ten duen karidadearen eresia: "Karidadea jasankorra da, ta boron-datetsua; karidadeak ez du jelosiarik, ez da andiustetzen", etab.

Mistika

Seudomistika bat al da Paulorena, itxaropen utsal batean finkatua?... Ez dut ukatuko seguru asko Paulo'k parusia gertu zegoela uste izana. Ausaz, ala izango da, Ain gauza ximpleak ez du ematen, ordea, bere bizitzaren eta ausartziaren arrazoirik. "Jerusalem'dik Iliria'raioñ bete dut Kristo'ren ebanjelioa", ta "Españia'ra noanean zuekin izango naiz" esan zezakean gizonak indar bat zuen, eta ez uste xoxo bat. Au da, Paulo'ren mistika.

Desordenuaren nahasketa?

Lehenengo kristaudien moralari oiñarri sendoagorik erantsi ote zion Paulo'k, galda diteke orain. Ethos sortu berria artu ala obetu ere egin ote zuen. Ez da falta emen ere Paulo'k moralik ez duela dioenik, agindu zerrenda besterik ez duela ageri-ta. Zer egingo diegu ba...

Judutarrak etzuten sekula ondo ikusi Paulo. Judaisuaren akabera signifiktzen baizuen. Judutarrak formulistak zirela oso, ba-dakigu. Onen arrazoia, agi denean, omen zen pentsatzen zutela gizonok zor misteriotso bat dugula Jainkoarekin, berdintzen dena bakar-bakarrik era egokian bizituaz. Teoria kurioso au eta bere ondarea erauzitzen zituen ankaz-gora Paulo'k, gizadiaren zorra pagatzeko Jesus gizondu zela irakastean. Legeak, bada, ez du indarrik gaurgero. "Letra illa da". Orduan? Lege berri bat emango al zaigu? Lege positibua bazterreratzean lege naturalarekin geldituko ote gera? Ala indibidualismua, anarkia, desordenua? Ez desordenurik, ez lege naturalik (Prat'ek dio Paulo'rentzat etzuela lege esanai benazkorik), ez bakoiztasunaren enganamendurik. Au gizartearen kontrast dago, ura Jainkoaren kontra, ta lege naturalik ez dago erabat gizatiarrik beintzat, ordenantza natu:ala naturalezaz gaindikoaren estrukturan esitua, itxia ta neurtua ezpada.

Kristaua Kristo'ren maillan bizi da ta bere Legea "ennomia Christi" da, "Kristo'rekin bat araua".

GIZARTE EREDUA

Gaiari buruzko eztabaida guziak gorabera, gauza bat dago begien

bistan: Paulo judua zela, eta kristianismua ere juduen artean sortua dela. Onek esan nai du kristaugaria bere azikeran eta formazioaren kontrastez eta alderatuaz gobernatuko ta kidatuko zela. Eta onen bere aldiaren esan nai du kristaugaria etzuela aurreko dena arbuaiatu, ondo zetorkiona onetsi ta errespetatu baiño. Eta kito.

Paulo ez da Jesukristo noski, eta ezin esango dugu berak eman zioela gizarte kristauari era ta kredita. Beste kristauek ere zerbaitetan arituko ziren, baike. Baiña goazen gu Paulo'rekin.

Rikarda Huch'ek idatzi du: "mundu guziarentzako seiñala diteke puntu erdiko bat, nun duen nortasun osoaren muiña". Sikologia erreza au, Paulo'ri buruz diardugumean, esan dudan bezala, Damasco'ra bidetako mirari miraritsuan sortzen zaigu bapatean erdi ori: Kristo. Saulo gazte amorratuaren izpiritua itzulia, biurtua ta birbiurtua izatu da erro-erroetatik. Finean, il da judu nazionalista, leku emateko unibersalista kristauari. "Ez da judurik, ez griego edo eszitarik, ez make-torik", denok anaia gera, eta obligatuak alkar maitatzera Kristoak salbatu ginduzenetik. "Zuek denok bat zerate", esaten dizuet Paulo'ren itzez, "Kristo'gan jaiotako enda berri bat zerate". "Izpirituak deitu zigun bataiokoa gorputz bakar batera, guziori, naiz judu naiz jentil izan". Israel berria, Kristo'ren erreinua, erri bakoitzak bere nortasunaren presenta egiaz burutuko da. Kristo'ren maitasunak denak erakartzen ditu, denak alkartzen, integratzen eta gorputz bat egiten, Gorputz Mistikuan. Au da Paulo'ren teologiaren muiña: jetxi zitzaigun Jesus, Jainkoaren amodioa bera, erriak eta jendeak bere bakoiztasunean salbatzeko. Arrezkero gizonok anaia gera, zenbait aldiz ez badirudi ere, ta gure salbakundea ez da nola edo ala lortzen dugulako, Jainkoak mesede ta grazia ori egiten digulako baizik.

ETA GAUR...

Ez ekonomiak, ideiak salbatuko edo galduko digute mundua. Onewatik, San Paulo etzen izan aparteko ekonomista, ideiaen iturri joria baizik.

Gizarteari buruzko Paulo'ren gogoa gauzatu nai izan zen beñola ez sakratu ta ez Inperio —ez ote?— etzen Sacro Imperio Romano-Germánico'an, zeinek ba-zuen bi akats oriez gainetik ez Erroma'ko ta ez germaniko ez izatea ere. Gaur, Europa Federatua ta onelakoak goian behean darabilzkigun aldi onetan batek, besterik gabe, pentsatzen du Gorputz Mistikuak orretara bultzatzen gaituela. Adiskidantza au da Jesus'en azkenengo lege ta agindua: maita ezazute alkar Nik maitatu zaituztedan bezala. Europa zahar deskristautuak Egiaren agindua entzungo balu... Baiña goazen beste puntu batekin.

"Atozkigu ta salba gaitzazu", eskatzen zion Paulori mazedo-

niatarrak. Eta Paulo, Asia utzirik Europa'n sartu zitzaigun. Jainkoak nai zuen ebanjelioaren azia emendarron artean erein. Eta Eliza edatzen asi zenean gure artean barreiatu zen gogotik, eta gure artean finkatu sendoen. Orretarako griegoen burutazioak, mintzaira, itzaropena ta pentsamendua osoki, propio, prestatua bezala zegoen. Aietaz baliatu zen Paulo. Gaur oster, griegoen aldi ura iragana ta erdi dagoen ezker, diote askok, Eliza'ren gauza asko ankilosatuta bezala daude, ta utzi egin bearko lirake. Betiko prolema da. Eliza edozein gizartetara moldatzen, gaitzen eta abiltzen da. Tamalez, alare, gaur ikusten da Eliza, edo Elizgizon asko ta asko, sartaldearen bizikerarako egiña bailitzaen eutsi nai dienak eraskin batzueri.

Egia, sartaldeko kultura asimilatu du Elizak. Eta zer? Ez al zen sartaldeko Paulo, Joan, teologia katolikoaren gurasoak, eta Jesus bera ere? Asieran sartaldeko kulturaz baliatu baziren, gaur orren bearrik ez dago. Beti izango da sartaldea munduaren buru ta kidari (?), baina gaur-egun sekula baiño areago sartaldearen ore, legamia ta txertua eskatzen du sartalde materialistak. Sortaldetik etorriko da izarra, Gaur Sartaldearen ordua dugu, H. Taine'k zioen "le moment", baiña izango da fruitu emateko gauza, sortaldetik artzen baditu aren arima ta izpiritua.

Spengler'ek duela urte zenbait erostatzen zuen sartaldearen ondarmendia. Nietzsche'k, banaloriatzen zenak mailluarekin pentsatzen eta filosofatzen zuenaz, ekin zion bein batean sartaldeko instituzioen zantpatzen mailluka, ta dinbi-danba dena txikitu zuen. Usteldurik baizgoen. Jendarte au maldan behera amiltzetik salbatzeko amoreagatik egin dira bi erreboluzio, liberalena ta Marx'ena. Ez dute balio. Iru-garrena, Fernandez de Castro'k iragarri ta guk desiratzen dugunez, erreboluzio kristaua izango da, baldin beintzat gaurko munduaren bearreri begiratuki, deliberatuki deliberatzen badu erantsi zaizkion traste zaharrak astinduz unibersalago, Elizago ta kristauago egitea.

JOSE AZURMENDI.

